



## EUSKO ALKARTASUNA PRENTSA BULEGOA EUSKAL HERRIA

### **EA-REN ADIERAZPENA 2010-EKO ABERRI EGUNAREN AURREAN**

Aberri Eguna, gure nazioaren aitortzea egiteko euskaldunok aukeratu dugun eguna, alegia, gure herriaren egoera politikoari eta sozialari buruzko hausnarketa egiteko aukera paregabea ere bada. Aukera paregabea nazio askea lortze aldera gure helburuak eta nahiak ozenki plazaratzeko, Eusko Alkartasunak aldarrikatzen duenez.

Gizarte Justizian oinarritutako Nazioa nahi dugu, pertsonen arteko benetako berdintasuna bermatuz, bizitza duintasunez garatu ahal izateko baliabideak bermatuz. Gure herriak bakean eta elkarbizitza politiko normalizatu batean jarduteko eta garatzeko eskubide ukazina du, eta horrela aldarrikatuko dugu, Eusko Alkartasunetik behin baino gehiagotan adierazi dugun bezala, ezin da herri bat eraiki bakerik eta gizarte justiziarik gabe.

2010eko Aberri Eguna ospatzen dugun egoera politiko honetan espainiar Estatuan erroturik dauden alderdiek (PSOE, PP, UPN eta UPyD) mugimendu subiranista osoa baztertzea dute helburutzat, argi eta garbi. Estrategia hori gezur batek elikatzen du, euskal izaera duen guztia ETA dela, hain zuzen ere. Horrek zilegitasun osoa duten eta Eusko Alkartasunaren muinean dauden aldarrikapenei –Euskal Herriaren independentziari, esaterako– uko egin behar izatera eramango gintuzke etorkizunean, behin baino gehiagotan publikoki eskatu duten bezala.

Eusko Alkartasunak argi du abertzale bezala ditugun helburuek inoiz ez dutela Madrildik eta Paristik erantzunik jasoko. Haietzat Estatu barruko lurralde bat baino ez gara eta, beraz, lurralde bati dagozkion eskubideak onartuko dizkigute gehien jota.

Frantziar Estatu bere politika zentralistak areagotzen ari da euskal errealitatea disolbatu nahian. Ipar Euskal Herriak departamentu propioa izateak ekarriko lukeen guztiari aurre eginez, apustua hain da horren aurkakoa ezen PSFko hautetsi eta arduradun politiko batzuk kontra agertu diren.

Espainiar Estatuan estrategia bestelakoa da. Gernikako Estatutua baino haratago joatearen aldeko apustua egiten duen gehiengo soziala dagoela ohartu ziren Lizarra-Garaziko Akordioaren ostean, eta Estatuan argi gorriak piztu ziren.

Horrela, 2001ean Ajuria Enea lortzeko saioan porrot egin eta gero, Estatuko botereek joko arauak aldatu eta Alderdien Legea onartu zuten; horrekin eta ETAk eskaintzen dituen argudioekin euskal gizartearen zati batek Eusko Legebiltzarrean ordezkartzarik ez izatea lortu zuten, gehiengo artifiziale –ez soziala– sortzeko eta euskal instituzioen kontrola eskuratzeko.



## EUSKO ALKARTASUNA PRENTSA BULEGOA EUSKAL HERRIA

Era horretan, Estatuaren eta espainiar adskripzioa duten alderdien estrategia zein den argi dago: egungo egoerari eustea normalizazio politikoari dagokionez aurrerapausoak ematea galarazteko.

Testuinguru honetan, Eusko Alkartasunak subiranismo independentistaren alde dauden indar politikoen, sindikalen eta sozialen batasunaren beharra aldarrikatu du oinarrizko eremu soziopolitiko egituratzeari begira, normalizazio politikoari erantzuna emateko eta Euskal Herrian bakea lortzen laguntzeko, betiere bide politikoak eta baketsuak soilik erabiliz.

Norabide horretan aurrera egiten ari gara pixkanaka. Horrela, alderdi subiranistok Eusko Alkartasunarentzat funtsezkoa den gai bati buruzko akordioa lortu dugu lehen aldiz: indarkeria erabat baztertzea helburu politikoak lortzeko, eta bide zibilen eta demokratikoen aldeko apustu sendoa independentziantz urratsak emateko.

Hori aurrerapauso erabakigarria da Euskal Herrian bakea lortze aldera. Horrek esan nahi du inork ez duela jada indarkeria tresna politikotzat hartzen eta justifikatzen, eta, beraz, bere desagerpena askoz hurbilago dagoela.

Testuinguru honetan, Eusko Alkartasunak aintzat hartzen ditu Europako azken gatazka amaitu dadin nazioartean egiten ari diren azken mugimenduak. Estaturik gabeko nazioetako hainbat alderdi biltzen dituen Europako Aliantza Askearen batzar nagusiak Eusko Alkartasunak aurkeztutako mozioa onartu zuen martxoaren 26an, Euskal Herrian garatu beharreko prozesu demokratikoari babesa emateko.

Halaber, besteak beste, Bakearen Nobel Saria jaso duten lau pertsonak (De Klerk eta Tutu hegoafrikarrek eta Hume eta Williams irlandarrek) sinatutako Adierazpena aurkeztu zuen martxoaren 29an Europar Parlamentuan Brian Currin Hegoafrikako bitartekariak. Bertan ETARI su-eten iraunkor eta nazioartean egiaztatzeko modukoa eman dezala eskatu zitzaion, eta espainiar Gobernuari, ETAK urrats hori emanaz gero, beste elkarrizketa prozesu bat ireki dezala eskatu zitzaion, "desberdintasunak konpontzeko eta bake iraunkorra lortzeko".

Hala ere, ETAK bere estrategia bortitzari eutsi dio eta duela gutxi frantziar polizia bat hil egin du, eta alde batera geratzeko eta bere burua eragile politikotzat hartzeari uzteko eskaera guztiei muzin egiten die, ezker abertzaleak eginikoari ere bai. Indarkeria erabiltzea inoiz ez da bidea izango Euskal Herriaren independentzia lortzeko. Eta Eusko Alkartasunak honako abiapuntu honi eutsiko dio beti bere jarduera politikoan: eskubide guztiak pertsona guztientzat eta herri guztientzat.

Abiapuntu hori subiranista guztiok aintzat hartuta, bidea zabalik dago elkarlanean aritzen eta mugimendu subiranista anitza eta baketsua abian jartzen saiatzeko,



## EUSKO ALKARTASUNA PRENTSA BULEGOA EUSKAL HERRIA

euskal gizartean gehiengoaren babesa duen proiektu hori gauzatze aldera estrategia oso bat zehazteko asmoz.

Testuinguru honetan, Eusko Alkartasunak bat egin du INDEPENDENTISTAK sare hiritarrak Aberri Egunerako antolatutako ekitaldiekin, sare hori alderdietatik kanpo jaio den mugimendu anitza dela eta egitasmo politiko subiranista guztiak errespetatzen dituela kontuan hartuta. Horrela Eusko Alkartasunak aldarrikatzen duen ekintza batasuna islatzeko aukera izango dugu, eta hori desiragarria ez ezik, posiblea ere badela erakutsiko dugu.

Prensa Bulegoa, 2010-04-01